

ASTOKERI BAT

BADIRA gizaseme batzuek, diruditenak jayotzetikan ikasiyak dakaz-
kitela itz batzuek, eta oker edo zuzen ordu guzietan itz oye-
ezanaz bizi diranak.

Oyetako bat M.....ko Pratrismo zan, edo egiaz esateko da; bada
oraindik, jayo erritik urruti arkitu arren, bizi da.

Pratrismo'rentzat guziya «astokeri bat» zan.

Ezkontzen zala bat edo apaiz egiten zala, miñez gelditu, edo senda-
tu, guziya, «astokeri bat» zan Pratrismo ren mingañian.

Ba zirudien besterik esaten etzekiyela.

Ez arri izer gauzatzaz iritzirik galdetu, bada abua zabaldu ordurako
esango zuben «astokeri bat» zala.

Egun batez, gure Pratrismo'k erritik alde egin zuben, nondik eta nola
iñork jakin gabe, ez nora jua zan, ez zertara, ez ezer ere.

«Astokeri bat» berak egingo zikan, zioten erritarrak Pratrismo'ren
alde egite ura nabaitu zutenian; eta urtiak igaro ziran bere berririk ja-
kin gabe, eta itzetik ortzera beti zebilkiyen «astokeri bat n geyago en-
zungabe.

Andik urte batzuetara ezkondu zan Batista, erri artan zan neska-
chik lirain eta ederrenarekin, eta edertasunaz gañera urre sarrez josiya
zgonneskacharekin.

Bez estayak izan ziran guchitan ikusten diran bezelakuak, eta on-
lakueta oi dan bezela ibill aldi bat egitera irren ziran kanpo erriyak
ikusyaz.


Nola orain daukagun guda galgarriaren gatik ezin jua zitezkie
Prantzi aldera, Kastilla aldera irten eta angu errietako batera irichi ziran.

Bazkaldu zuten, erriari jira eman ere bai eta afal orduan atera ziran zerbait jai-aldi ikusteko asmoan.

Juan ziran bez azango antzokira, eche berri berri bat oso apainkiro egiña eta an ate gañian «Granteatro», ipiña zeukana urrutitik ikusteko antzera.

Batista'k zion bere emasteari, an barrenen zerbait ikusgarri arkituko zutela, eta egiazki ala gertatu zan.

Atetik sartu ta beren jarlekuetara irichi baño len, ez bat eta ez bi, Patrisio'rekin arkitu ziran. Aztu ta zeukaten Patrisio arrekin.



N.^{ko} ANTZOKI BERRIA

Alderatu ordurako galdetu zioten Patrisio'k eta bestian erantzun era ontan :

- ¿Ezkondu egin alzerate?
- Bai, ta bazekiat zer esango dekan.
- ¿Zer?
- «Astokeri bat», egin degula.
- Ez dek bada asmatu. Esatera niakan egin dituzutela bi.
- ¿Nola?
- Ik eskontziarekin bat, eta ire emastiak bi.
- Orduan iru.

A. DARRA